

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1996ko abenduak 20

Usurbil, 10. Zenbakia



**HORRA,
HORRA,
GURE OLENTZERO...**

HILDAKOAK



1996-12-07
Santiago Zabala
San Sebastian
84 urte.
Santuenea.

1996-12-13
Luis Casado Holgado
59 urte.
Kaleberri



Zorionak XOMORRO!
Herrera de la Manchako espetxean preso dagoen Xabier Aranburu euskal presoak abenduaren 17an bete zituen urteak. Egun batzuk beranduago bada ere bihoazkio hemendik gure zorionik beroenak.

EZKONTZAK

Maria Pilar Añorga Garcia
(Txokoalde)
eta
Ignacio Sorozabal Portu
(Lasarte)
1996-11-30

Emilio Marcos del Arco
(Kaleberri)
eta
Izaskun Huizi Olaizola
(Kaleberri)
1996-12-14

Haur jaio berriarekin argazki-
ren bat atera nahi duzuela,
edo ezkontzako argazkia
argitaratu?
Deitu lasai **Noaua!**ra.

JAIOTZAK

Oihane Rubio Curiel
(Olarriondo)
1996-12-01

Arrate Imaz Eizagirre
(Zubieta)
1996-12-08
(argazkian)



Bai, esan?


• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea egoitza	37 32 28
• Agerialdeko ikastetxea	36 38 85	• Gure Elkarte egoitza	37 17 51
• Oiardo kiroldegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte musika eskola	37 15 94	• Eusko Tren informazioa	47 09 76
• Etumeta euskaltegia	37 20 01	• Noaua! aldizkaria	36 03 21



USURBILGO UDALA

Aldizkari honek
Usurbilgo Udalaren
laguntza jaso du

Dagoeneko 255 usurbildar
bazkide ditu Noaua!-k
Zu ere egin zaitetz bazkide!



HERRIKO
DENDA
ETA
ZERBITZUAK
ERABILI

Noaual

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaual!
Kultur Elkartea. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL
(Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943)
36 03 21.

Zuzendaria: Olatz Altuna.
Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar,
Ines Kamino, Leire Atxega,
Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Begoña Zubiria,
Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfonso
Vidal eta Nieves Aranburu.
Administrazioa: Arantxa
Usaralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz,
Mertxe Olalozola.


Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe
Antonio Labaien, Juan Luis
Izeta. **Informatika:** Pili Lizaso.
Banaketa: Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Tirada: 2.000 ale. **Sukaldaria:**
Joxe Mari Sarasola

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaual hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esamen eta iritzien erantzunkizunik.



Gabonak direla eta...

Mari Karmen Blasco

Udarregi Ikastolako irakaslea

Gabonak gainean ditugula bistan da. Despistaturik egon ez dadin, mota guzietako denda eta supermerkatuak hasiak dira aspalditik beren apal, sabai eta eskapartekak edertzen eta hornitzen. Kolorea eta diztira ugari behintzat.

Etxetako atari eta buzoietan ere iragarki eta txostenek gainezka egiten dute, zein baino zein azkarrago gure eskuetara iritsi nahirik.

Ohitura denez, gabonak beti ospatu izan ditugu familia edo lagun artean; kalean gazteek eta etxean helduxeagoak garenok. Eta esan behar da eguberriek badutela modu berezian sentiarazten gaituzten xarma bat. Eguberri izpiritu hori, alegia. Nire kasuan behintzat familia eta oroitzapenei lotua dagoen izpiritua eta ilusio haundiz bizitzen dudana. Egia esan, garai hauetan egin ohi duen giro hotzak dexente errazten du.

Baina tira, dena esaten hasiz gero, gabonak ez dira batzuentzat besteentzat bezain erosoak. Etxekoandreak datozkit burura, ze asko eta asko lanpetuak ibiltzen baitira menu bereziak prestatzen, eta batzuk buruhauste dexente izaten dute mahaia behar den bezala hornitzeko. Hala ere, gehiago edo gutxiago, gehienetan beti ibiltzen dira lanpetuago emakumezkoak gizonetzkoak baino.

Eta behin janariaren gaia ukituz gero, ezin diru kontuak aipatu gabe utzi. Gero eta haundiagoak dira janari eta erregalietan gastatzen ditugun edo gastatzen diren diru kopuruak. Badirudi iragarki eta publizitatearen eragina guk nahi baino haundiagoa dela eta azkenerako, lehenxeago edo beranduxeago, kosta ahala kosta, denok erortzen gara errueda horretan. Denoi, edo gehienoi behintzat, gehiegi gastatzen dugula iruditu arren, gurean jarraitzen dugu, errua gizarte eta horrelakoei botaz. Zenbaitzuk probetxua aterako die egoera honi.

Udaletxeek argi indarretan ordaintzen dituzten fakturak ere ez dira nolanhikoak izaten, kaleak apaintzeko erabiltzen dituzten bonbiletan batera. Gehiegi.

Baina oraingo honetan "modan" egotea tokatu zaion Zairekoa bezalako gertakizunez oroitzean zer pentsatu behar dugu? Telebistan negar egiteko moduko irudiak azaltzen direnean bai, agian malkoren bat ixuri ere bai, baina gero segituan ahazten dugu dena gure eguneroko zereginetan murgiltzean.

Egun ospatzen diren gabon edo eguberri hauek nagusiki, diruaren sostengu izaten bukatu dute, eta kontsumitzea, gastatzea, gauzak izatea... behar bat bihurtu da, zoriontsuak izateko ezinbestekoak direla pentsatuz.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Eguberrieta
urteberrion!



Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17

TABERNA
Urteberrion!



ERREKONDO

EGUR
zerra



Eraikuntzetarako:

Haritza Piñu Alertzea

Altzariak egiteko:

Haritza Lizarra
Gereiza Gaztaina

Z u b i e t a ☎ 3 6 2 2 3 7

HIESA-REN AURKAKO BORROKA EGUNEROKOA DA

Pasa den aleko Ika-mikan **Amaia Imazek HIESA**ren inguruko gutun bat idatzi zuen. Bere iritzia eta esanak inolaz ere ezeztatu gabe, puntu bat argitu nahi nuke. "HIESAren inguruan inolako ekimenik gauzatu ez denez (oso oker ez banago behintzat)" aipatzen zuen. Egia da, herrian ez dela HIESAren Kontrako Nazioarteko Egunaren ohiartzun haundirik somatu. Badirudi oraindik ez dugula oso gertu ikusten arazo hori. Guztion arazoa da eta informatuta egotea beharrezkoa dugu.

Baina, ekimenei loturik, **Usurbilgo Gazte Asanbladak** zenbait gauza antolatu dituela aipatu gabe ezin da utzi: HIESAren inguruko erakusketa bat ikusgai egon da eta hitzal-

di eta bideo-emanaldi bat ere antolatu dituzte. Pozgarria da gazteengandik horrelako ekimenak sortzea. Baina hala ere, badago egitekorik oraindik. Amaiak zenbait ideia proposatu zizkigun: heziketa sexualean bere tarte ematea, herriko tabernetako tabako-makinetan antisorgailuak jartzea... Orain da garaia horiei ekiteko. HIESAren Kontrako Nazioarteko Eguna abenduaren 1ean ospatu zen, baina horrelako egunak ez dira urtean behin gogoratu eta ospatzekoak. Egunero izaten ditugu Nazioarteko bezala izendatutako egunak, eta askotan bere horretan gelditzen dira: egunean soilean. Egun horretan soilik azaltzen dugu gure kezka arazo horiekiko. Baina horrek bakarrik ez du balio, urte osoan egin behar da lana gauzak aldatzeko.

Beraz, usurbildar guztioi, arazoa ahaztu gabe, horretan ekitera animatzen zaituztet.

HIESArekiko kezka duen irakurle bat

AKATSAK ZUZENDUZI

Kaixo lagunok:

Baleriano Sagardiari bere jaiotzaren ehun urte betetzean Udalak eskainitako txapelak hitz hauek zeramatzan:


"ZAHARTUZ AHALA ZUHURTUZ MENDEA DU MENDERATU".

Eta ez, zuek **Noaua!**ren azaldu zenutena:

"Zahartu eta zuhurtuz mendea menperatu".

Akats hau hurrengo alean zuzenduko duzelakoan.

Xabier Pikabea



HIESAri buruzko erakusketa ireki zuen Usurbilgo Gazte Asanbladak. Udarregi Zaharreko gela batean duzue ikusgai erakusketa hau. Asteburu honetan ere zabalik egongo da, hilak 20, 21 eta 22an.

Eguberrietaurte berriari zoriontsuak opa dizkizuegu!

Eguzkitza, 6 ☎ 36 29 70

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE ONA

Urte zaharra ondo bukatu eta berria hobeto hasi!

Tlf. 37 08 78
K. Nagusia, 2 1. C/

20 70
USURBIL

Eguberrieta urteberriari!

N•I

Ileapaindegia
MISTOA

Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefonoa: 36 19 51



MARIA ARIZETA ZINKUNEGI

Aiako Orendain baserrian jaio zen. 26 urterekin Iturran baserrira ezkondu zen. Han 22 urte bizitu ondoren, Usurbilgo URKAMENDI BASERRIRA etorri ziren senarra eta biak zazpi umerekin. Harrezkero bertako etxeakoandrea dugu Maria.



Gororatzen al zara nola ospatzen ziren lehen gabonak?

Bai, bai, gogoratzen naiz Lehen ere genuenarekin gustora izaten ginen. Zeozer extraordinarioa izaten bazen, gustora.

Familia osoa elkartzen al zineten?

Ez, ez ginen orain bezala denok elkartzen. Etxekoak bakarrik. Ezkonduz gero, ni ere ez nintzen nire baserrira joaten. Bakoitza bere etxean gelditzen zen. Gainera "konbinaziorik" edo joateko modurik ere ez zen garai hartan.

Zer jaten zenuten gabon egunetan?

Baratzuri zopa, bakailua pipar batzuekin, babarrun txuria eta "ahia" izaten genituen normalean. Eta Eguberri egunean, noiz edo noiz, oiloren bat.

Etxeko produktuekin moldatzen zineten, beraz.

Bai, bai. Eta postrerako ere gaztainak edo konpota izaten zen. Gure ama zenak sagarrik onak gordeta izaten zituen. Arratsalderako hasien zen konpota egiten.

Turroirik ez al zenuten jaten?

Ez. Nik 26 urterekin edo eraman nuen lehenengo turroi puxketa etxera Tolosatik.

Zuk eramandako turroia probatu zuten, orduan, lehenengo aldiz etxekeak.

Beno, ez. Aurretik ere norbaitek eramandakoa probatu genuen, eta orduan inbidia egin zitzaizgun.

Gogoratzen al zara nolakoa zen zeuk eramandako turroia?

Bai. Paketetxo batean eraman nuen. Biguna zen eta barra bat txuria... Baina bakoitzari puxketa txiki bat egokitu zitzaion, hainbeste jende-

ren artean...

Afalostean zer egiten zenuten?

Kontuak esan, jokuan egin puska batean... eta lo egitera gero.

Parrandarik ez zenuten egiten, orduan.

Ez, gauean ez. Hurrengo egunean mezatarra joan behar izaten genuen. Hiru meza izaten ziren, eta ahal bazen hiruretara joaten ginen. Eta lehenengoa goizeko 6.00etan zen, gainera!

Goizean mezatarra eta arratsaldean festara joango zineten, bada.

Beno, hasieran, ni gaztea nintzenean, ez zen festarik izaten. Geroxeago bai. Iturriotzen ere Urteberritan zerbait izaten zen eta Aian ere bai.

Etxe barruan, gabonetan jaiotzarik edo jartzen al zenuten?

Orendainen ez naiz asko akordatzeko, "Niño Jesus" bat, goroldioa ere biltzen genuen... Baina gerora bai. Hona etorri gero ere beti jarri izan dugu jaiotza.

Gabon gauean eskean edo jaiotzarekin ateratzeko ohiturarik ba al zenuen?

Nik neronek ez, baina "Olentzo-eskia" aspaldi-koa da. Laurgainen jendea biltzen zen eta apaizak zuzendurik baserri-baserri kantatuz ibiltzen ziren.

Olentzero edo Erregeak iristen al ziren zuen etxera?

Ni ez naiz asko akordatzeko Erregeek kontuez. Nik hiru-lau urte nituenean, sei urteko lehengusuak galdetu zidan: "Erregek erregalarik ekarri al dinatete?", eta nik ez nekien Errege eguna zenik ere! Ez ziren orain bezala haurrak jeiki eta erregalo zain egoten.

USURBIL

O P T I K A



Eguberrieta
urteberrieta!



Orain gabonetan, opari bezala, Indo progresiboak bifokolen prezio berean



Iraza kalea, 9-11. 20.170 Usurbil
Tel. eta Faxa: 37 0 2 69

KALEZAR



Begoña Zubiria

Kalezarko umeak eskean dira aspaldi honetan. **Patinetean ibiltzeko tokia nahi** dute. Beraiek esan didatenez Kalezarren patinetearekin ibiltzen hasten direnean **jendea oihuka** hasten zaie, eta **ez die uzten patinetean ibiltzen**. Hori dela eta, ez dute tokirik patinetean ibiltzeko. Nazka-nazka eginda daude, behin eta berriz errietak entzuten ari baitira. Hau guztiagatik **patinetean ibiltzeko lekua** eskatzen dute, batez ere "U" delakoa, hau da patinetean ibiltzeko pista. Pista honekin konformitzen dira, horrela errietarik entzun gabe patinetean ibiltzeko aukera izango bailukete.


Kontu hau alde batera utzi eta kalezartarren beste kexa bat ezagutzera eman beharrean nago. Plazatik autobus geltokira jeisteko **eskailera** gero eta **egoera okerragoan** daude. Eskailera hauetan jende asko ibiltzen da egunero gora eta behera. Goizean goiz erdi lotan gaudenean **"eskapada" ederrak** egin ohi ditugu. Beno, egia esan "eskapadak" baina gehiago, bat baina gehiago erori baita bertan. Noiz dute eskailera hauek berritu edo konpontzeko asmoa? Erori eta golpe soilak baino zerbait gehiago izan arte itxaron behar al dute? EA ba laister konpontzen duten.

AGINAGA



Iratxe Begiristain

Honelakoak izan ditugu entzungai mus txapelketaren ondoren hasi eta igandera bitartean: **"mila duro Soberanok Txantxoni sega apustua irabazi baietz"** edo **"mila duro Txantxonek Soberanori irabazi baietz"**. Abenduaren 15ean, 10.30ak



aldera jarri ziren kronometroak martxan. Zelaiaren goiko aldean Soberano eman eta eman zirkulu antzean bueltaka, eta beheko aldean **Agustin "Txantxon"** gora eta behera. 11.30ak aldera **Txantxon** zigarro bat errez hurbildu zitzaion **Soberanori** apustua galdu zuela adieraztera. Ondoren hamaiketakoa egitera joan ziren biak. Pasa berri den hego haizearen arrastoak ote?

Bestalde, **Arrate zahar egoitzan "Loteria del niño"** delakoa daukazue urtero bezala. Aurten go zentzua 33782a da.

Ezin bukatu hainbeste kilometrora aurkitzen den **Xomorrori Zorionak** opa gabe, abenduaren 17an bete zituen eta.

ATXEGALDE



Amagoia Mujika

Eguraldia bilakatu zaigu azken asteotan protagonista nagusi. Euri jasek arrasto nabarmena utzi dute, erretenak urez eta zikinkeriz gainezka azaldu baitzazkigu.

Bestalde, gabonak gainean ditugunez **Udarregi zein Ageri-Aldeko ikasleen egonezina** nabaritzen hasia da. **Santo Tomas feria** ospatuko dute **hilaren 20an**, ostiralean, beti ere **txistorrada** eder batekin. ez diete lan makala jarri txistorra egiten Alkortatarrei.

Besterik gabe bada, loteria-
ren hondarren bat Atxegalden eroriko den susmoarekin, **1997ak zorte ona ekarri eta festa onak igaro ditzazuela**. Loteria tokatzen bazaigu ederki, eta bestela ere bai, osasuna dugun bitartean...



xabier

eDaritegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Urtezaharra ondo bukatu eta berriahobeto hasi. Zorionak!

Aritzeta, 2 36 19 78



Lore eta

lore landareak San Esteban Tlf. 36 22 55

URTINEA LORATEGIA

Gabon zoriotsuak eta urteberrion!



Zorionak!

ANGULAK




Galardi etxea, z/g 20.170 Usurbil

Tfno. 36 20 52 Fax 37 02 63

ejiran

URDAIAGA

Leire
Atxega

A metsa egi bihurtu da Urdaiagan. Zeinek pentsa zezakeen **kartakutxak** izango genituela **Urdaiaga puntan**. Garai batean zenbait baserrietako gutunak kaleko ezagun baten etxean jasotzen genituen, eta orain... Gizartea aurrera dihoan heinean guri ere etxeko atarira iristen zaizkigu aurrerapen hauek.

Lehen bidea konpondu eta asfaltatu ziguten, eta gaurkoan **kartakutxak** ditugu **etxetik gertu**. Batzuk kartakutxaren aitzakian etxetik ateratzen gara, baina beste batzuk oraindik ez dira ohartu kartakutxa berri hauek dituztela. Pozez txoratzen gauden bitartean Urdaiaga punta honetatik **eskerrik asko ideia hau eduki dutenei**. Postariak gain urdaiagatarrek biziki eskertzen dugu kartakutxa baliogarri hauen presentzia.

Eguberri jai bezperan gaudenez hartu urdagaiatarren partetik gure zorionik goxoenak. Jesus haurtxoak osasuna eman diezagula eta gure proiektuak aurrera eramaten lagundu. Bide batez urte berriari ere hasiera ona eman.

TXOKOALDE

Iñaki
Labaka

Udaletxeko langileak **Errementaldegi** eta **Saltxipiren artean erreka bazterrak garbitzen** aritu dira. Arazoak eta kexak aspaldikok dira. Udara aldean errekarren ondoan bizi ziren auzoki-



deek sinadurak ere bildu zituzten Udalak zerbait egin zezan zikinkeriak botatzen zuen usainarekin amaitzeko. Azkenean garbitu dute, eta baita zikinak atera ere! **Hiru kamioikada** inguru atera omen zituzten.

Euritearen eraginez **Oria ibaia ia atera zen** Txokoalden joan den **abenduaren 5ean**. Eskerrak euri jasa izugarri hura garaiz gelditu zen. Kalte handirik ez du egin, angula harra-patzeko tokia moldatzen ibili zirenei beren txokoa izorratu badie ere.

Amaitzeko, auzoko **etxe guztietan** atariko ate gainean **zenbakiak ipini** dituzte. Aurretantzean postariak eskertuko du zenbaki hauek jarri izana.

KALEBERRI

Ines
Kamino

Eguzkitzan etxebizitza berriak eraikitzeke lanak aurrera doaz. Azken hilabeteetan jo eta ke ari dira lanean eta gero eta eraikuntza haundiagoa antzeman daiteke. Hala ere, **lan hauek zenbait eragozpen** eragiten dituzte. **Errepidean zuloa dago**.

Egunez ondo ikusten da baina **iluntzen duenean zailtasunak** izaten dira errepidearen karril batetik ezin dela pasa ikusteko. Komeniko litzateke bihurgunearen hasieran argi batzuk ezartzea.



Denda eta taberna kontuak ere aipatu behar. Kale nagusian **Sunbeltz tabernak** izenez aldatu du. **Orain "Zendoia enea"** izena du, taberna sortu zenean bezala. Kale nagusian bertan **Ikuska bideodendan** jabe aldaketa izan da.

Eguzkitzan ere denda **berri bat** ireki dute lehen Inhar zegoen lekuan. Joan den hilaren 17an ireki zituen lehen aldizateak fruta denda berri honek.

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Zorionaketa eguberri on!

Nagusia, 6
Tlf 36 27 25

MAHUKA



GAZTE-DENDA

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06

PORTUARRIENE

Zorionaketa
urteberri on!

ITURGINDEGIA

BAINUKO
ALTZARIAKKale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99

GABONETAN BADA ZER EGIN ETA ZER IKUSI

Gabonak gainean ditugu. Abenduaren amaierak eta urtarrilaren hasierak hainbat ekintza gerturatzen ditu Usurbil aldera. **Olentzero, jaiotza, urtezahar festa, kabalgata... konturatu gabe gainean izango ditugu.**

Abenduaren 22an emango zaie ongi etorria gabonei. **Ziortza Gazte Taldeak** antolatu ohi duen **Santo Tomas festak** hartuko du Usurbilgo frontoia igandean. Santo Tomas ondorengo lehen igandean egiten da festa hau eta aurten **5. urtea** egingo du.

Txistorraz gain, taloa, sagardo, ardoa... izango da zer jan eta edana, beti ere **Ziortzako** haur nahiz monitoreei esker. Taloa egiten ikasi nahi duzula?, **Ziortzako Gazte Elkar-tekoek** aukera hori emango dizute, nahi duenak taloak egin ahal izango ditu. Trikitixa, txalaparta...denetik goiz osoan zehar, eta nola ez, arkumearen zozketak ere ez du hutsik egingo.

Jaiotza eta Olentzero

Abenduaren 24an berriz, Usurbil inguruan abestuz ibilaldi bat egiteko aukera paregabea. **Matildek** jadanik prestatuak izango ditu jaiotzako gurdian joango diren San Jose, Amabirjina eta aingerutxoaren jantziak. **Joxe Goenaga** ere jo eta su ariko da gurdia apaintzen, beti ere Salvatore parroko katekisten laguntzaz.

Orain dela **20 urte** hasitako ohiturari jarraituz, haur, gazte eta helduek Etxealdia, Santuenea, Kalezar, Olarriondo, Atxegalde eta Kaleberrin utziko dituzte beren doinuak.

Olentzerori Usurbil ezagutzeko aukera emango die **Senideak-ekoek**. Abenduaren 24an, arratsaldean, erregaliak dagozkion lekuan utzi nahiko dituen ez olentzero herrian zehar paseatuko dute kantari.

Inuxente egunean jatena

Ez da inuxentada, benetan. Abenduaren 28an **barrikotea sardin zarrak eta gaztainak** dastagai izango dira deman. Inuxentadak eginez gosetu egin zaretela? Ez kezkatu, **Sagardoaren Lagunek** prest edukiko dute dena zu etortzen zarenerako. Gaztain, sardin zar eta sagardoarekin ederki berotuko zarete. (Oharra: lehendabizi etortzen diren 50 pertsonak izango dute soilik jan eta edateko eskubidea. Beraz, azkar ibili).

Urte berriari ongi etorria emateko zer hobea juerga eder batekin hastea baino. Goizaldera arte gorputza izerditu nahi izanez gero **Izotz taldeak** eta Udarregi zaharreko noizean behingo **diskotekak**. Eta aurten sarrerarik ordaindu gabe gainera, a ze "txolloa". Hala ere frontoiaren estalkia konpontzen hastekoak direnez, non egingo ote da urtezahar festa? Gerturatu frontoi aldera eta ikusiko duzu.

Badatozela erregeak...

Bai etorriko dira, 50 antortxe-roen argiez gidatuta. Urdaiaga aldetik agertuko dira errege egunaren bezperan, urtarrilaren bostean. Haurrak ondo asko dakiten bezala, karteroak hartuko ditu eskutitzak goizean, beti ere bi muxu jaso ostean. Ondoren arratsaldean..., **Meltxor, Gaspar eta Baltazar** aurrez-aurre ikusteko aukera, Eta karamelok biltzeko aukera ere bai noski! 80 kilorekin omen datoz aurten.

Usurbilgo gabon ekitaldiei amaiera emango dio kabalgatak. **Aurrez, etxeko txikienek errege-laguntzaileari utzi beharko dizkiote beren eskutitzak.**



Argazkia: Ekaitz

Eguberrietaurteberri jaizoriontsuak opadizkizuegu!



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

SALTXIPI



JATETXEA

Eguberrieta urteberri on!

Txokoalde, z/g - Usurbil Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

BORDATXO
EDARITEGIA
PINTXO BEREZIAK


Eguberri eta urteberri on!



Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42


1996ko URTE ZAHAR GAUPASA usurbil



Egitaraua:

12etan. Urte zaharrari agurra eta berriari ongi etorria kanpaiekin batera.

- Kanpaiak
- Mahats jatea
- Txanpain edatea
- Txalaparta
- Bertsolariak



2etan **IZOTZ** taldearekin dantzaldia

Ondoren Diskoteka

SARRERA DOHAIN



Atxegalde, 10

Tel. 36 65 42

KIROL JANTZIAK
OPARIAK
Zatoz!



Eguberri eta urte berri on!



Alperoburu -behea
Tel. 36 34 48

Liburudenda

H erorrek esan



Gorka Iradi
Galtzaragaina

Erregeek eta olentzerok ekartzen dizkirate opariak.

Turroia jartzen diegu jateko, baina beti ez dute jaten. Oraindik ez dut pentsatu zer eskatu, baina nola gehiengotan txintxo portatu naizen...



Itsaso Gonzalez
Santuenea

Aurrena olentzerok eta gero erregeek egiten dizkirate

opariak urtero-urtero. Zuhaitza eta jaiotza ere beti jartzen ditugu. Aurten panpin-etxea, bi panpin eta beste zerbait eskatuko diet.



Irati Arruti
Eguzkitza

Biek. Gainera, jateko ardoa eta kola-kaop jartzen diegu.

Etxea berriz, zuhaitza eta jaiotzarekin apaintzen dugu. Oraindik ez dut eskutitza egin, baina esku-soinu handia nahiko nuke ekartzea.



Sergio Montes
Eguzkitza

Biek egiten dizkirate. Ligako baloia eta erropa

eskatu ditut. Hori olentzerotako, gero erregetan beste opari batzuk.

Zeinek ekartzen dizkizu opariak eguberritan? Zein opari eskatuko dituzu?



Maialen Galarza
Atxegalde

Olentzerok eta baita erregeek ere. Etxeko guztiak

apaintzen dugu etxea. Oraindik ez dut pentsatu ongi zer eskatu, bideo-joku bat soilik.



Egoitz Mendikute
Atxegalde

Atxegalde

Biek. Nire arre-bak ezik, gurasoek eta

nik apaintzen dugu etxea zuhaitza eta jaiotzarekin. Game-boy-arentzat bi joku eta ligako baloia eskatuko ditut. Txintxoia naiz eta...



Alaitz Artola
Zubieta

Biek. Etxean pinua eta jaiotza jartzen ditugu apain-

garri gisa amak eta biok. Aurten erropa eskatuko dut besterik ez. Gero, etortzen dena ondo hartuko dut.



Xabier Ikutza
Kalezar

Niri erregeek ekartzen dizkirate opariak. Nik ez dut

etxea apaintzen, zapata jarri berriz bai. Izan ere, gauza asko eskatu dizkiet: baloia, tenisko erraketa eta erropa.



Endika Berradre
Elizalde

Biek. Nire anaia izan ezik, beste guztiak ibiltzen

gara argiak eta bolak jartzen. Baloia, game-boyarentzat jokuak eta erropa eskatuko diet.



Aitor Lopez
Santuenea

Biek. Nik eta anaia-ak apaintzen dugu etxe-a, guraso-

ei ez zaie gustatzen eta. Grua du-en kamioia eta kontrukziorako jokua nahi ditut.



Laura Txamorro
Atxegalde

Biek. Aitak, amak eta hirurok jartzen ditugu zuhaitza

eta naximentua. Aurten bizikleta, game-boy bat eta ordenagailua eskatuko ditut.

Barruko arropak eta etxeko arropak



Zorionaketa urteberrion!
Aritzeta,1
Tel. 36 17 87


TXIRIBOGA TABERNA

Urte berrion!



Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

BAZKARIAK ETA AFARIAK



Santuenea 23
Tlf. 36 27 34
Zorionak!

GURE ARTEAN BESTELAKO GABONAK ERE BADIRA



JESUS MARI PIKABEA

Jehovako testigoa

Zubietar honek ez ditu eguberriak ospatzen. Bere erlijioaren arabera, hori ez baillizateke zuzena izango: "guk gabonak ez ditugu ospatzen, festa hauen oinarriak ez direlako agertzen Biblian. Liburu honetan ez da agertzen inoiz Jesus abenduaren 25ean jaio zenik. Festa hauek eliza katolikoak erromatarrengandik hartu zituzten tradizioa dira. Erromatarrek abenduan eguzkiaren jaiotza ospatzen zuten (Saturnalak). Garai honetan hasten baitira egunak luzatu eta gauak moztzen. Festa hauetan orgiak egiten ziren, elkarri opariak egin... eta antzeko gauzak. Izugarritzko jende pilak hartzen zuen parte bertan. "Desmadre" hau ekiditzeko elizak gabonen kontu hau asmatu zuen data berdinetan gehiegikeri hauetan ez erortzeko. Guk beste edozein egun bezala pasatzen ditugu hauek, Biblian ez baita agertzen data hauek ospatu behar direnik..

ABOUFARISS AHMED

Musulmana

Marokon jaio zen Aboufariss duela 46 urte. Eta duela 20 urtetik hona gure lurretan dabil. Hala ere, emaztea eta lau seme-alaba bere sorterrian ditu "Ez dugu Jesusen jaiotza ospatzen, izan ere, guk beste profeta daukagu: Mahoma. Hala ere, abenduaren 25 eta 26an festa handi bat egiten dugu. Bertan abestu, dantzatu, jan eta edan egiten dugu. Familiako guztiak eta inguruko musulmandar asko biltzen gara Iruñean eta bertan pasatzen ditugu egun hauek".



UXOA ZUMETA eta NEREA ZINKUNEGI

Ospakizunen aurkakoak

Arte Ederretako bi ikasle hauek nahiago izaten dute egun hauetan herritik kanpora atera: "Aukera badago, nahiago izaten dugu ateratzea; beste opor batzuk izango balira bezala hartzen ditugu". Nerearen ustez ordea, "montaje honetatik "deskonektatu" nahi izaten dut. Festa hauek oso hipokritak direla uste dut, ez zaizkit batere gustatzen". Uxoantzat gehiago da opor egunak hartzea. Baina biak ados daude gauza batean, "herrian geratzen bazara ezinezkoa da dinamika honetatik ihes egitea. Usurbilen asko bizi dira eguberriak". Nahiz giroa egon, beraiek Nafarroa aldean igaroko dituzte gabonak.

Zorionaketa urteberrion!



TABERNA

San Esteban kalea, 1
Usurbil Tif 36 00 80



ZUMETA JATETXEA

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Gabon zoriontsuak!




Txoko alde, Tel.: 36 27 13

TABERNA JATETXEA



ANTXETA

Egukitza, 4 Tel: 37 03 44



ISTRIPUEI AURRE EGIN NAHIAN

Urtea bukatzera doan honetan, gauza desberdinen inguruko balorazioak egiteko joera dugu: uda txarra izan dela, uzta kaxkarra edo ugaria, langabeziak berdin edo okerrago jarraitzen duela, etxebizitza ugari egin direla herrian... Gu, oraingoan, errepidera atera gara. Eta egia esan, gauza onik ez dugu topatu.

Kontatzen hasi, eta aurten ere asko izan dira beraien bizia errepidean galdu dutenak. Urrutira joan gabe, Irubidetik Sariakolara arte anbulantzia behin baino gehiagotan ibili da hara eta hona.

Azken asteotan ere beste istripu bat izan da. Abenduaren 10ean, Troia parean. Zorionez ez zen istripu larria izan eta zauriturik ere ez zen izan.

Baina azaroaren 19an gertatutako istripuaz ezin da gauza bera esan. Kalezarko autobus geltokiaren parean oinez zihotan herritar bat kotxe batek harrapatu zuen. Errua norena izan zen eztabaidatzen ez gara hasiko. Denok dakigu bide bazter horiek nola dauden. Baina, ezin al da ezer egin?

Usurbilgo saihesbidea (bariantea) 1975ean egin zen bi arrazoiengatik: bide nagusia



Azaroaren 29an Kalezarko autobus geltokiaren parean gertatutako istripuan herritar batek galdu zuen bizia




Troiako istripu honetan trenbidea itxi zen minutu batzutan. Irudian agertzen den bezala, kamioiko egurrak trenbidera erori ziren.

herriaren erdigunetik ez pasatzeko eta herritarrentzat zuen arriskuagatik.

Baina hala ere, Kalezar eta Ugaldea industrialdetako jendearen joan-etorriari ez zitzaien irtenbiderik eman. Autobus geltokirako bidea zeharkatzeko ere ez zen ezer aurrikusi. Gauzak horrela, 1983an udalak Ostapetik Txaparrenereainoko arazoari irtenbidea emateko proiektu bat enkargatu zuen: **634 Errepide Nazionalean oinezkoentzako lur azpiko pasabidearen proiektua.** Pasabide hori Goiz-Eguzki etxea eta autobus geltokiaren parean kokatzen zen. Aurrekontua, materiala eta kontratazioa barne, 29.806.888

LIZARDI

LIBURUDENDA



Zorionak etaurte berrion!

K/ Etxebeste, 1

Tel. 36 11 15

G A L A R R A G A
G A R R A I O A K

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK



Zorionak!

☎ 37 01 46

ZENDOGIA - ENEA


TABERNA

Goizeko 7atik irekia

Gozariak, Tartaiketakoak, egunero menuak eta besteak



Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25



634 Errepide Nagusiaren proiektua 1988an egin zuen Diputazioak, baina oraindik ez da gauzatu.

pezetakoa zen. Bost hilabete-tan egitea aurrakusten zen eta urtebeteko garantia zuen. Baina proiektua bere horretan gelditu zen. Ez ziren obrak hasi.

Proiektu berri bat

Bost urte beranduago, 1988an Diputazioak beste proiektu bat egin zuen: **634 Errepide Nazionalaren zabalpena eta hobekuntza 0. km-tik (Irubide) 3,5. km-ra (Usurbil)**. Honen helburua Txikierdiko eta Atsobarreko sarrera bitarteko kurba batzuen erradioak haunditzea zen. Gainontzean, proiektua errepidearen luzera eta zabalaren aldaketetara

mugatzen zen. Zabalerari zegokionez, 3,5m-tako bi bide eta 1,5 m.-ko bazterbideak egitea aurrakusten zen. Udalak, ordea, Usurbilgo zatian espaloia gehitzea eta oinezkoentzako lur azpiko pasabidea eskatu zituen.

Proiektuaren aurrekontua, guztira 968.017.648 pezetakoa zen (553,058,094 pezeta materiala eta 553,058,094 pezeta kontratazioa). Gutxi gora behera hamar hilabete-tan egiteko moduan izango zela kalkulatu zen. Bertan ez zen Txikierdiko errotondarik aurrakusten.

1990ean arauak onartu zirenean, udalak errotonda egitea proposatu zuen. Diputazioak ere behar hori ikusi zuen eta proposamena onartu egin zuen.

Azkenean, errotonda honi eman diote lehentasuna eta Txikierdiko arazoa konpondu da egindako aldaketarekin. Errepidea, ordea, bere horretan dago oraindik. Zabaldu gabe, bidegurutzetako arazoa konpondu gabe, espaloirik gabe eta pasabiderik gabe. Noiz arte? Badirudi oraingoz inork ez duela galdera honen erantzunik.

Ainhua Azpiroz

Buru-azalar enzaínketa
Ile-apainketa

Etxebeste,3 Tel. 37 16 85

Jaizoriontsuakigaro

Ekaitz

Bideo eta Argazkiak

Usurbil tlf 36 14 87 oiartzun

ARRAINDEGIA
PELLO

Eguberri eta urte berri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Arizeta,1 / Tlf. 36 21 64

ZUBIETAK AUKERATU DITU HERRI-BATZARRERAKO KIDEAK

Xabier Arregi 67 boturekin,
Iñaki Aizpurua 44rekin eta
Joxeli Aroztegi 38rekin
Donostia aldetik, eta **Isidro Zaldua** 60 boturekin, **Larraitz Izagirre** 56rekin eta **Eusebio Iparragirre** 45ekin Usurbil alde-
tik izan ziren joan den abenduaren 15ean Zubietarrek herri-batzarra osatzeko aukeratu zituztenak. Sei hauek osatuko dute datozen bi urteetan Zubietako herri-batzarra.

Zerbait aipatzekotan **partehartze aldua** azpimarratu behar. Zubietarrek ez zioten muzin egin botua emateko aukerari.

Goizeko bederatzietatik eguerdiko ordubatera bitarte-

an Usurbilgo Lanbide Eskolan, hauteskudean parte har zezaketen 322 zubitarretatik 239k eman zuten botua, %74ak hain zuzen ere. Usurbil aldean %78ak, 150etik 117k. Donostian berriz, partehartzea zertxobait baxuagoa izan zen, %71, botu eskubidea zuten 172tik 122k eman zuten bere botua alde honetan. Botu txuriak eta nuloak gutxi izan ziren, 4 botu txuri eta botu nulo bat.

Herri-batzarra osatuko duten ordezkariak aukeratu ondoren abenduaren 18an batzarkideen aldarrikapena egin zen, eta abenduaren 22an, berriz, herri-batzarra ofizialki eratuta geldituko da.

Hauteskunde hauetan aukeratuak izan diren ordezkariak 1999ko maiatzean izango diren udal-hauteskundeak arte osatuko dute herri-batzarra. Orduan, eta aurrerantzean udal hauteskudeekin batera egingo da Zubietako herri-batzarraren hautaketa.

Lehen bi urteetan Donostia aldeko ordezkari bat izango da Zubietako alkate, eta hurrengo agintaldia Usurbil aldeko ordezkari bati egokitu-ko zaio. Atzo aukeratu zen herri-batzarreko alkatea Donostiako alkateak izendatuko du, Odon Elorzak. Datorren agintaldian berriz, Usurbilgo alkateak.

DONOSTIA ALDEKO EMAITZAK	USURBIL ALDEKO EMAITZAK
Botu eskubidea zutenak: 172	Botu eskubidea zutenak: 150
Botua eman dutenak: 122 (%71)	Botua eman dutenak: 117 (%78)
Abstentzioa: 50 (%29)	Abstentzioa: 33 (%22)
Hautagaiek lortutako botu kopurua:	Hautagaiek lortutako botu kopurua:
* Xabier Arregi----- 67	* Isidro Zaldua----- 60
* Iñaki Aizpurua----- 44	* Larraitz Izagirre----- 56
* Joxeli Aroztegi----- 38	* Eusebio Iparragirre----- 45
Jose Kruz Telleria----- 37	Narciso Arrillaga----- 39
Imanol Azpiroz----- 31	
Xabier Zudaire----- 21	
*Herri-batzarra osatzeko aukeratuak izan diren 6 zubietarrak	

Telesforo Ardoak

Gabonetarako onenak!



Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

Zorionaketa urteberrian!

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Lb T
H.A.P.A.T.E.G.I.A

Atxega Alde, 34 ☎ 36 57 42



**EAJ
PNV**



Usurbilgo EAJ-PNV-k Eguberri eta urte berri jai zoriontsuak opa dizkie herritar guztiei.

ZORIONAK!

OIARDO
UDAL KIROLDEGIA



*Zorionak
kirolzale guztioi!*

Oharra: abenduaren 24,
25, eta 31, eta urtarrilaren
1 eta 6 itxita

Usurbil - Tlf.: 37 24 98



Eguberri eta urte berri on
herrian eta gogoz kontra
kanpoan dauden
usurbildar guztioi!

Usurbilgo
**HERRI
BATASUNA**



*Zorionak eta
urte berri on!*

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



BIDEO IKUSKA

BERRIRO ZABALIK JABE BERRIEN ESKUTIK

Pelikulaberriak eta azken nobedadeak zure eeskuera:
"Condenada", "El sustituto", "Abierto hasta el amanecer",
"CitizenX", "Ala horaseñalada", "Decisión crítica"...

Disney pelikulak, Game Boy eta Super Nintendo
jokoak salgai



K/ Nagusia, 25 - T e l . : 37 10 98



**MAPFRE
ASEGURUAK**

Ana Olasagasti

Eguberri eta urte berrion!

Etxebeste kalea, 9 Tlf. 36 00 83

JANTZIAK

Eguberri
on!

Zorionak!

Atxega-ald. 18
Tel: 37 34 81

EUSKAL KULTURAREN BATZARREKO KIDEAREN HITZALDIA USURBILEN

Euskal Kulturaren batzarraren (EKB) "Eman euskarari **eberea**" kanpainaren barruan, **Joxe Mari Iturbide EKBko kideak** urte osorako antolatutako **kanpaina horren berri** eman zuen joan den abenduaren 10ean Udarregi zaharrean. Ez zen jende askorik hurbildu, baina bertan izan ziren besteak beste **Usurbilgo EHE, HB, AEK/Etumeta, UGA, Akerra gaztetxea, Usurbil Intsumitua** eta **Andatza K. K. E.**ko ordezkariak. Hauekin batera beste zenbait herritarrek jaso zuten euskararen aldeko ekimen berri honen inguruko informazioa. Besteak beste euskararen egoera uste baina okerragoa dela adierazi zuen EKBko kideak.



ORGANUAREN 75. URTEURRENEKO EKITALDIAK AMAITU DIRA



Salbatore elizako **organoa ekarri zenaren 75.** urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi izan dira azken asteotan. Abenduaren 13an **Piotr Klemenski** organujole Poloniarrek kontzertu bikaina eskaini zuen. Hurrengo egunean berriz, **Zumarte musika eskolako irakasleak** izan genituen Salbatore elizan beren doinuak eskaintzen. Zumarte musika eskolako zenbait ikasle usurbildarrekin batera hainbat abesti eskaini zituzten. Ospakizunak abenduaren 19an, ostegunean, amaitu ziren, **Irrii abesbatzak, Zumarteko abesbatzak, Txistulari taldeak** eta **herriko organojoleak** emandako kontzertuaz.

USURBILDARREK 5 DOMINA LORTU DITUZTE GASTEIZEN

Usurbilgo Judo Kirol Elkartekoak indartsu dabilta azken aldi honetan. Azaroan jokaturako Espainiako txapelketan hiru ordezkari izateaz gain, joan den astean **Gasteizko nazioarteko txapelketan bost domina** lortu zituzten. Usurbildarrek Errioxa, Nafarroa, Bizkaia, Araba, Kantabria eta Frantziako ordezkariari egin behar izan zieten aurre, baina **Esteban Arrilagak** entrenatzen dituen judokak ez ziren kokildu. **Iban Etzaniz** eta **Andoni Aizpuruak** urrezko dominak lortu zituzten, **Gaby Sarasolak** zilarrerkoa eta **Aitzol Arrozpide** nahiz **Xabier Urkizuk** brontzezko dominak.



okindegia
gozotegia
MARY
Gaztañazpi, 1 - Tel: 37 10 80
USURBIL

Eguberrietaurteberri on!



*Erropa, opari eta bitxiak
gabonetarako bereziki*

Eguberrietaurteberri on usurbildarguztiori, etabereziki
gogoz kontraherri tikurrunaurkitzen zareteneroi.

Kale Nagusia, 9 - ☎ 37 32 04

*Eguberri eta
urte berri on!*



Eguzkitza

Epaiketak Aginagatar Intsumisoei

Urtarrilaren 9an **Xabier Orbegozo** aginagarra epaituko dute intsumiso izateagatik. Azken aldi honetan hainbat aginagatar izan dira epaituak Espainiar ejerzitoarekiko intsumiso izateagatik. Azaroaren 29an **Jokin Errastik** azaldu behar izan zuen epaitegira, eta joan den abenduaren 11ean **Xabier Amonarriz**-i iritsi zitzaion txanda.

Andatza K.K.Earen diapositiba emanaldia Udarregin

Joan den hilaren 14an, larunbata, Andatza K.K.E.ak urte osoan zehar egindako ekintzen errepassoa egin zuen diapositiben bidez. Udarregi Zaharrean jende askotxo bildu zen. Hurrengo egunean, berri, igandean, Usurbil-Belkoain-Buruntza-Usurbil mendi bizikleta irteeran 20-25 lagun abiatu ziren. Ibilbide osoa burutzeko asmoz ekin bazioten ere, azkenean ibilbide osoa egin gabe itzuli ziren Usurbila



Usurbilgo odol emaileek joan den abenduaren 8an egin zuten urteroko bazkaria. 50 odol emaile inguru bildu ziren Antxeta jatetxean egindako bazkarian. Odol-emaileen artean umore ona izan zen nagusi. Xiringak ahaztu eta bapote jan zuten.



Joan den abenduaren 13an 12 urtetik 14 urte bitarteko haurrek bertsoez gozatzeko aukera izan zuten Udarregi ikastolan. Bertan Bota Punttuba bertso eskolako Iñigo Manzidor eta Ibai Esoain bertsolariak kantari aritu ziren. Haurrek gustora entzun zituzten bertsoak. Bukaera aldera haurrek bertsolariak jarritako ariketa batzuk egiteko aukera izan zuten. Bestalde, Ibai Esoain oriotarra Usurbilgo Bertso eskolaren ordezkari gisan aritu zen Xenpelar bertso sariketan. Zortzigarren gelditu zen.

UEMAN sartzeko aholku batzordea martxan da

Udaleko aholku batzarrak UEMAN sartzeko aholku batzordea osatu du. Abenduaren 19an egin zuten lehen bilera eta batzorde honen zeregina UEMAN sartzeko aurreproiektua eratzeari izango da, bertan sartzeko bideak zehaztea.

Luis Gorriti presoari 30 urteko zigorra ezarri diote.

Luis Gorriti usurbildar presoari 30 urteko kartzela zigorra ezarri diote. Auzitegi Nazionaleko salak abenduaren 12an hartu zuen erabakia.

Santa Luzia, jostun eta itsuen eguna.

Abenduaren 13an Santa Luzia egunak ematen duen aukera ederki asko aprobetxatu zuten usurbildar emakumeek. Etxe txokoak bazterrean utzi eta jatetxe ezberdinetarako bidea hartu zuten afaltzera joateko. Goiegi, Saltxi, Antxeta, Ortzaika... hauek guztietan atzeman ditugu jaki goxoak dastatzen.

KONPONKETAR
ALDAMU
Zapatak, Kanpinak,
Kreamailerak
(poltsak,
zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2 - Tel: 37 27 95

Eguberrieta urteberrion!

Aginaga
36 27 73

SEKAÑA

BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Tuleta eta Arraia

ARRANDEGIA MIKEL
Gaztañazpi, 1 - Tel.: 36 63 56
USURBIL

Eguberrieta!

KIROL KOPLA



MARKEL OLAIZOLA

Abendua ere bere amaieran dugu, bai horixe. Egun batzuk besterik ez dira falta 1996ari ateak isteko. Kirol gutxi eta jan nahiz edana asko. Hori da gabonak uzten duten erregalia; niri bai behintzat.

Lerro hauek idazteko eman didaten aukera hau Kontxa hondartzako futbol txapelketa goraiatzeko erabili nahiko nuke. Izan ere, itsasoaren jeitsierak aprobetxatuz, 1640 futbolariaren lekua bihurtzen da kontxa, ez pentsa txantxetako gauza denik.

Helduean berriz, urrian hasi eta maiatzean amaitzen den txapelketa honetan Usurbilek badu ordezkari bat: Aginaga Sagardotegia. 5 urtez jarraian finalera iritsi ondoren aurten ere iazko garaipena errepikatu nahi dute. Lehen fasea jokatu ondoren 1. postua eskuratu dute. Zorionak!

Hondartzatik futbol zelaira. Datorren abenduaren 28an herriko bost taldek Usurbil F. T.-ak antolatzen duen gabonetako torneo jokatu dute. Inuxente eguna bada ere, benetako albiste dela ezin ukatu, eta taldeen aurkezpenarekin behar diat bukatu: Usurbil taberna, Usurbil F. T.eko jubenilak, rejionalak, Antxeta jatetxea eta Aginaga sagardotegia.

ERREPIDETIK ZIKLO KROSSERA

Etorkizun haundiko txirindularia dela askoren ahotan entzun dugu azken bi urteetan. Errepidean ezezik, pistan eta ziklo krossean ere oso ondo moldatzen den mutila da **Haimar Zubeldia**. Orain dela bi urte jubenil mailan eman zen ezagutzera, Gipuzkoako bira irabazi zuten. Orduetik gaur egunera eman duen saltoa haundia da.

Hala ere, **Haimarrek** bere betiko ohiturak jarraitu nahi izan ditu aurten. Afizionatu mailako lehen urtean denboraldi polita egin arren, ziklo krossa ez du alde batera utzi. Txirindulari askok nahiago izaten dute errepidean burubelarri aritu, baina usurbildarrek lokatz arteko probekin prestatzen dihardu datorren denboraldia.

Ez zaio batere gaizki irten. Orain arte korri dituen **hiru laisterketetatik bitan lehen postuan** iritsi da helmugara. Ormaiztegin egin zuen aurten debuta, eta bertan 23 urtez

azpikoetan minutu bat baino gehiagoko aldea atera zion bigarrenari. Andoainen zuen hurrengo proba, baina hau suspenditu ondoren Orion Gipuzkoako ziklo kross txapelketa garaile irten zen, berriz ere errazatasun osoz. Lokatzak ere ez zuen gelditu **Urdaigako mutila**.

Hala ere, beti ezin irabazi. Abenduaren 15ean Igorreko nazioarteko proban hartu zuen parte, eta han ezin izan zuen aurreko postuetan egon. Bertan elite mailakoekin neurtu zituen indarrak, eta 8. postuan iritsi zen helmugara. Kontutan izan, proba honetan nazioarteko txirindulariek parte hartu zutela.

Hurrengo proba Telleriartekoa izango da. Bizkaiko herri honetan Euskadiko txapelketa egongo da jokoan. Hauxe izan liteke Haimarrek denboraldi honetan parte hartuko duen azken ziklo kross proba. Oso ondo egon ez arren faboritoetako bat izango da, bai horixe!

Errepiderako prestatzen ari bada ere, ziklo krossean ondo moldatzen den mutila dela erakutsi du Haimar Zubeldiak. Oraingoan, Gipuzkoa mailan ez du areririk izan 23 urtez azpikoetan.



ORKO
GANETAKO
DEULO
 Zorionak etaurteberrion!
 Aritzeta 2 - 2 Usurbil

TXAPART

HARATEGLA
 Kale Nagusia, 9
 Tel. 36 48 00
 Aginaga
 Tel. 36 17 07

DYA: EDOZEIN LARRIALDIRAKO PREST

Garai batean "mediku etxea" deitutakoan aurkitzen da DYAko egoitza. Inoiz zerbait gertatuz gero, 46 46 22 telefonora deitzea besterik ez duzu, eta han-txe izango dituzu segituan bertako kideak laguntzeko prest.

Joxe Luis Artola, Andoni Almandoz, Joxe Luis Ferreira, Joxe Manuel Ikutza eta Rosa Zubeldia egoten dira edozein larrialdiri erantzuteko zain. Ez da oso talde handia, horregatik Lasarteko DYArekin batera lan egiten dute.

Duela zazpi urte sortu zen Usurbilgo DYA. Joxe Luis Artola, Usurbil eta Lasarteko arduradunak aipatu duenez, "Lasarten honelako talde bat baguen, eta garai horretan Usurbilen DYA sortzea beharrezkoa zela iruditu zitzaizgun. Udalarekin hitz egin eta baimena eman ziguten. Prozesu honetan Garbiñe Rekondok asko lagundu zigun. Hasiara batean Andoni bakarrik apuntatu zen, ea horrelaxe egon ginen lehen bi urtez. Gero Joxe Manuel, Rosa, Joxe Manuel Ikutza sartu ziren. Iaz beste lau neska ere animatu dira".

Azpiegitura aldetik behintzat ezin gaitetzeke kexatu usurbil-

darrok. Izan ere, erreskate unitatea, anbulantzia eta patrola ere bai baitugu herrian. Joxe Luisek adierazi digunez, "duela hiru urte erosi genuen patrola, Andatza aldean zerbait gertatuz gero bertara joateko. Aipatu beharra dago maila honetan Udalak laguntza handia eman digula beti. Gainera, esan dezakegu gure patrola Espainia mailako onena dela. Guk geuk diseinatu genuen eta Espainiako toki askotatik deitzen gaituzte berau ikusteko".

DYAko unitate guztiak bolondresez osatuta daude. Andoniren esanetan, "astegunetako gauak eta asteburu guztiak ere hemen pasatzen ditugu. Donostian bezainbat irteera ez ditugu egiten, baina ordu kopuru aldetik gehiago

pasatzen ditugu guk. Ebaki txiki bat sendatu eta pertsona bat erreanimatu ahal dezakegu. Gauza gordin asko ikusten ditugu, baina momentuan ez zara horretaz jabetzen. Lehenik lagundu egiten duzu. Okerrago da beranduago, orduan hasten zara buruari bueltak ematen".

Nahiz eta egiten dutenarekin oso gustora egon, jende berriaren falta nabaritzen dute. "C1 gida-baimena duten pertsonak animatzea nahiko genuke. Era honetan, beste anbulantzia bat ere aterako genuke. Sorosle izan nahi dutenek beriz, sorosle kurtsiloa egin behar dute soilik. Bestela errelebo falta nabarmentzen ikusten dugu. Giroa eta umorea jadanik soberan ditugu", azpimarratzen du Joxe Luisek.



Azpiegitura aldetik ezin gara kexatu usurbildarrok. Edozein larrialdiri aurre egiteko prest baitauezkagu DYAko lagunak.

Kritikatxo bat ere egin nahi izan dute orri hauek aprobetxatuz: "Zerbait gertatuz gero, ez mugitu etxetik. 46 46 22 telefonora deitu eta norbait segituan etorriko da zuengana. Askotan ez gara egoten lokalean, eta jendea bertara etorri eta ez gaudela ikustean joan egiten da. Baina guk beti izaten dugu aldamenen "talkia" edo "buska". Beraz, zuen deia ziur erantzungo diogu.

Idoia Torregarai

PINTURAK FERNANDO

Sintasola, moketa, kortxoak eta tarima jartzen dira

Bizkarre, 6 / Usurbil
Tlf 36 60 19 / 36 34 60



LABE-TXIKI

Kale Nagusia, 2
Tel. 37 33 48
37 09 13





Aza olioak eta bakailaoa piperrekin

Juanita Sagardia. PATRI Jatetxea

Garai batean eguberritan aza olioak, bakailoa piperrekin eta kapoia jartzen zen. Gainera, maizterrak nagusiarengana joaten zirenean urteko errenta ordaintzera, kapoia ematen zioten. Nagusiak berriz, bakailua oparitzen zieten maizterrei. Lehenengo platera beraz, tradizioz betetakoa izango da: aza olioak eta bakailoa.

Lehenik eta behin, **azak** txikitu eta uretan eduki ordu erdiz egosi arte. Gero, ura kendu, azpil edo fuente batetara atera eta aurretik egin dugun olio erre botako diogu baratxuriekin. Bestalde, **bakailoari** gatza kenduko diogu eta frijitu egingo dugu. Kazuela batean jarri eta gero piperrak botako dizkiogu.




Baserriko oilasko errea Errezil-sagar purea eta Tuterako orburu frexkoak arraultza-irinetan

Felix Sarasola. TXITXARDIN BELTZA jatetxea

Oilaskoari barrunbeak kendu eta garbitu ondoren, **Errezil sagarrak** sartuko ditugu barruan azala eta bihotza kenduta (ahal baldin bada helduak, gozo puntu bat izan dezan). Ondoren, labean sartuko dugu gatza eta piperrekin ikututa. 170ºtan ordubete inguruan erreko da. Erre bitartean ardo txuria botako diogu. Erre ondoren, barruko Errezil sagarrak atera eta irabiagailuan pasako ditugu, oilaskoaren

lagungarri izango den pure goxo bat egin arte.

Bitartean **orburu edo alkatxofak** garbitu eta gatza eta limoi batekin igurtziko ditugu ilundu ez daitezen. Ondoren egosi egingo ditugu urari irin pixkat botata. Egosi ondoren, lehortu eta arraultz-irinetan pasa eta frijitu. Ondoren oilaskoaren inguruan jarri eta sagarren purea eta oilaskoaren zukua botako ditugu gainera.



Turroizko biskuita, sagardo karameluarekin

Manu Piñeiro. BENTARA NOA BENTATIK NATOR-eko postregilea

Biskuita: 500 gr. turroi gogor birrinduko ditugu. Aparte, sei arrautz 50 gr. azukrerekin su motelean jarriko ditugu eta poliki-poliki nahastuko dugu dena 2 minutuz. Ondoren, turroi hautsa botako diogu eta loditu arte nahastu. Utzi hozten. Bestalde, litro bat esnegain harrotu lehen egin dugun orearekin nahastuko dugu, suabe (oreak epela egon behar du, bestela esnegaina garrastu egingo da). Dena nahastu eta gero, moldean filma jarriko dugu (ez itsasteko). Moldea bete eta gero izozkailuan sartuko dugu, gogorra geratu arte.

Sagardo karamelua: kazuela batean 200 gr. azukre bota eta su motelean jarriko dugu ur tanta batzurekin. Nahastu gabe utziko dugu karamelua bihurtzeko, eta gorritzen denean litro bat sagardo botako diogu gainean. Piskat loditu eta hoztu arte utziko dugu.

Postrearen aurkezpena: biscuita izozkailutik atera eta xerretan moztuko dugu aurkezteko momentuan. Gero karamelu pixkat botako diogu gainera. Jateko prest dago.

eiza

D e n D a

Eguberrijai
zoriotsuakopa
dizkizuegu!



Aginaga ☎ 36 12 06

Eguberri eta urte berri on!

Elexpe
SOLARIUM
ileapaindegia

Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62



Ileapaindegia



Zorionak
eta
urte
berri
on!

NAGUSIA, 2 -Tlf 37 28 44

Gabonak gainean ditugu. Haurren poza eredutzat hartu eta lehiaketa aldatzera animatu gara orain-goan. Orain arte, argazkiekin ibili bagara ere, oraingoan beste era bateko lanean jarri nahi zaituztegu. **Etxebeste jatetxean afaria** irabazi nahi baduzue ez duzue lan haundirik egin behar. Zer eskatuko diezu Olentzero edo Erregei? Horixe jakin nahi dugu. Baina badakizue, Olentzero edo Erregeei eskutitz polita bidali behar zaie, bestela... Eskutitz politenak, orijinalenak, bitxiak... Iortuko du gure saria. Eskutitzak bidali Urtarrilaren 5a baino lehen helbide honetara: Noaua! aldizkaria, Kale Nagusia 37, 20170 Usurbil.

Bestela gure buzoira bota eskutitzak. **Animatu zaitetz!**



Egia esan, **Aitziberrek** ez du etxetik asko urrundu beharra izango auzoko **Tragoxka** tabernan afaltzeko. Baina, beno **Noauak** bertako turroia probatzeko aukera ematen dizu. On egin!

Noaua!-ko bazkide eta publizitatea egiten dutenentzat eguberri zozketa mundiala!


3 "xexto" bikain osatu ditugu herriko produktuekin. **Arrospideren** onttoak, **J. M. Alduntzinen** ezti, **J. L. Iparragirre**ren piper-gindilak, sagardoa, txakolina, **Saizarko** sagardoza, intxaurrak, hurrak, **J.M. Arruti**ren lukainka eta gazta, eta babarrunak. Bazkideek bere zenbakiarekin eta publizitate etxeek banatu zaienarekin parte hartuko dute zozketan. Zozketa **1997ko urtarrilaren 1ean** egingo da. Saridunak nor diren urteko lehenengo **Noaua!**-n argitaratuko da.

Jende asko dago oraindik ere Kalezarko plaza nolakoa zen gogoratzen duena. Bai, arrazoi duzue, monumentuaren lekuan **lizar** bat zegoen lehen. Zenbat aldiz ibili ote ginen bere jiran dantzan!

Ba, gure buzoira iritsi diren erantzunak dantzan jarri eta astindu ondoren, **Maria Jesus Olanori** egoitu zaio **Bordatxo edaritegiko** afaria.

Kroketak ezezik, **Maria Luisaren** espezialitateak probatzeko aukera izango duzu. On dagizula!

komikia



Aitziber Elorza



Eguberri eta arte berri o

etxebe

jatetxea

EGUNEKO BAZKARIAK

Aginaga (Usurbil) Tlf. 36 27 40



arrate

zahar

egoit




taberna-jatetxea

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Aginaga Tlf. 36 63 40



EDIZIUN=NON



4-Z-2-2-2-2

MOTR GAZTETIA

Kale Nagusia, 2

9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21

ABENDUAK 20 ostirala

● **Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak** antolatuta, **Kotxe karabana** egingo da herrian zehar. **Frontoi atzetik irtengo da arratsaldeko 20.00etan.**

● **UGAk** antolatuta, **IHESari** buruzko **bideo emanaldia**. AEK-ko bideo gelan arratsaldeko **17.00etan.** **Ondoren hitzaldia.**

ABENDUAK 21 larunbata

● Futbol aretoko partidua (M): **Antxeta Taldea-Aloña-Mendi K.E.**

● Eskubaloiko kadeteen partidua (M): **Usurbil K.E.-Hondarribia.** **Arratsaldeko 16.00etan.**

● Eskubaloiko jubenilen partidua (M): **Usurbil K.E.-Hondarribia.** **Arratsaldeko**

17.30etan.

● Eskubaloiko Bigarren Nazionalako partidua (N): **Usurbil K.E.- J.D.Arrate.** **Arratsaldeko 19.00etan.**

ABENDUAK 22 igandea

● Ziortzak antolatuta, Santo Tomas feria ospatuko da frontoian. Taloa eta txistorra dastatzeko aukera izango dugu. Arkume eder bat ere zozketatuko da.

● Bigarren regionaleko futbol partidua (M): **Roteta-Usurbil.**

● Saskibaloiko partidua (M): Txankakua- Usurbil S.T.

ABENDUAK 23 astelehena

● Euskal Herria Askatu!-ren konzentrazioa errotodan.



Arratsaldeko 20.00etan.

ABENDUAK 24 asteartea

● Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, preso-en aldeko olentzeroa aterako da arratsaldeko 16.00etan frontoitik. Ondoren, manifestazioa egingo da.

● Parrokiak eta katekistek antolatuta, jaiotza aterako da urtero bezala auzoz-auzo gabon kantak abesteko aukera emanez. Parroki-etxearen aurrean, arratsaldeko 16.00ak aldera.

● Antxeta Jatetxean MUS txapelketa egingo dute.

ABENDUAK 26 osteguna

● San Esteban txiki eguna. Goizeko 11.00etan meza nagusia eta ondoren hamai-ketakoa. Ttrikitilari eta bertso-lariek jarriko dute giroa eta umorea.

ABENDUAK 27 ostirala

● SENIDEAKen manifestazioa arratsaldeko 20.00etan.

ABENDUAK 28 larunbata

● Sagardoaren Lagunek barri-



Abenduaren 22an, Usurbilgo Oiardo Kiroldetean "TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX"-en "TATANKA YOTANKA" lan berriaren aurkezpen-emanaldia ikusteko aukera egingo da. Arratsaldeko 17.00etan izango da. Sarrerak aurretik 500 pta. balio du, eta egun berean 600 pta.



LE MANS ASEGURUAK


PIKABEA AGENTZIA

- Istripuak
- Autoak
- Etxeak
- Komertzioak...

- Prezio onean
- Eskatu aurrekontu konpromezurik g

Eguberrietaurteberrian!

Uzturre plaza, 8 LASARTE-ORIA Tlf 37 11 18/37 19 97



Lourdes KIROLAK JOSTAILUAK

Eguberriari zoriontsuakopa dizkizuegu!

Gaztañazpi, 1 Tel: 37 03 90



enda

kotea, sardin zarrak eta gaztainak prestatu dituzte Inuxente Egunean dastatzeko **Dema plazan**. Azkar ibili beharko du jendeak zerbait probatu nahi badu, **lehendabizi etorzen diren 50 pertsonak** izango baitute jan eta edateko eskubi-dea

ABENDUAK 30 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**-ren kontzentrazioa frontoian egingo da. **Usurbilgo Gudari hilei Omenaldia** antolatu du Usurbilgo Ezker Abertzaleak arratsaldeko **19.30etan**.

ABENDUAK 31 asteartea

- **Urte zaharrari** agur esateko **izotz taldea** etorriko da 1997. urtea umore onez hasteko. Aurtengoan **sarrera dohan** izango da, baina frontoiaren estalkia konpontzen hasi behar dutenez, **fiesta non** egingo den galdetzen du batek baino gehiagok. Frontoi aldera inguratu beharko du hori jakiteko. Hala ere, **Udarregi Zaharreko diskotekak** dagoen tokian

jarraituko du.

ABENDUAK 5 igandea

- Laguntzaileak eta zuzi-eramaileak aldamenean dituztela etorriko dira ekialdetik Usurbil aldera **Meltxor, Gaspar eta Baltazar erregeak**. Frontoira 19.00 edo 19.30ak aldera iritsiko direla uste da. Karamelo pila batekin omen datoz aurretan.

ABENDUAK 6 astelehena

- Euskal Herria Askatu!-ren kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan

OHARRAK

- ✓ **Gasteizen ikasten** edo **lanean ari den jendearekin harremanetan** jarri nahi dut **egunero joan-etorria egiteko** edo bertan pisua alokatzeko. Deitu **36 58 54** telefonora 20.00etatik aurrera.

- ✓ Errege kabalgatako **zuzieramaleen** (antortxeroen) **bilera** egingo da **urtarrilaren 2an**. Arratsaldeko **20.00etan** Parrokian.

- ✓ **Abenduaren 20an Elkarrik IV. urteurrena** ospatuko du **Zubietako Araeta jatetxean**. **Abenduaren 22an** berriz, **mahaia** jarriko dute **beren lana** ezagutzera emateko.

- ✓ **Gure Pakea Zahar Egoitzak Txistor jana** pres-

tatu du **abenduaren 20an**. Arratsaldeko **17.00etatik aurrera, bazkideek** bapoz jartzeko aukera izango dute.

- ✓ **Arrate Zahar Egoitzak loteriako 33782 zenbakia salgai** duela jakinarazten du.

- ✓ **Usurbilgo Gazte Asanbladak** antolatu duen **HIESari** buruzko erakusketa abenduaren 20, 21 eta 22an ikusgai izango da UGAren lokalean. Goizez: 12.00etatik 14.00etara. arratsaldean: 17.00etatik 19.00etara.

- ✓ **"Euskal artistak Goyarekin"** erakusketa **Zerainen** ikusgai abenduaren 20tik urtarrilaren 12ra. 20 euskal artisten lanak, tartean J.L. Zumeta, "Arrastalu" eta A. Tapia usurbildarrak.

- ✓ **Larrua truk taldeak abenduaren 20an Ibaetako kanpusean** kontzertua eskainiko du **Ttak eta Patagoniarekin** gaueko 21.00etan. **Urtarrilaren 2an Burgosen Boikot** (Madrid) taldearekin batera joko du. **Urtarrilaren 3an Andoaingo gaztetxean Boikoteekin** batera. Eta **urtarrilaren 4an Gasteizen** ere talde berdinarekin.

LANPOSTUAK

- ➔ **Usurbilgo Udala**. Administrazio Orokorreko Liburutegiko-laguntzaile bat behar da. Eskaera epea: 96-1-7. Informazio gehiago udaletxean.

BAZKIDE TXARTEA
5.000 PEZETA URTE OSORAKO


Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
Noaua!



A. BRUÑO E HIJOS

Zumartegi industrialdea
Legarda kalea
Usurbil



ESKEINTZA BEREZIA

2 txangurro
edo buia
12 langostino
24 ganba
200 gr. kamaroi
400 gr. karrakela
1 bot. Blanc Pescador

BANDEJA
4.500 pta.

BANDEJA + 4 Nekora. 5.500 pta.

BANDEJA + 1 Mixera 6.000 pta.

**BANDEJA + 4 Nekora
+ 1 Mixera 7.000 pta.**

Menu ezberdinetarako aurrekontuak egiten ditugu.



Dena egosirik, zure mahairako prest

**Egin ezazu zure
eskaera telefonoz:**

37 27 88

37 15 89

ORDUTEGIA:

**Goizez 10-13
(egunero)**

**Arratsaldez 4-7
(igandetan ezik)**